



## GOBERNU BATZARRA

2019.06.03

**Alkatea:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**

**Nerea Letamendia Beloso**

**Jokin Azkue Arrastoa**

**Patxi Amantegi Zubiria**

**Iñigo Alonso Sarasibar**

**Idazkaria:**

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Jarduneko kontuhartzalea:**

**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko ekainaren hiruan, 8:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Aurreko akta onartzea.
2. Onartza Tolosako udal mugapean bidairen herri-garraio zerbitzuaren kontratua luzatzea.
3. Tolosako Beotibar pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilatua eta fatxada birgaitzeko eta pilotalekuko eraikineko irisgarritasun hobetzeko obren 4. ziurtagiri-likidazioa (33/2019 faktura).
4. Onartza Administrazio Orokorreko teknikari baten izendapena, oposizio-lehiaketa Bidez eta bitarteko izaeraz, Tolosako Udaleko zerbitzu ekonomikoetan aldi baterako programa bat egikaritu dezan 32/2018 Foru Dekretutik eratorritako arautze-alidaketak eta beste batzuk ezartzeko arautzen duten oinarriak .
5. Onartza Tolosako Udaleko errenta eta ordainarazpenetarako teknikari lanpostua bitarteko izaeraz hornitzeko hautaketa jardunbidea arautuko duten oinarriak
6. Onartza Tolosako Udaleko



plantilan hutsik dagoen Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren Sustapenerako buruaren lanpostua bitarteko izaeraz hornitzeko hautaketa jardunbidea arautuko duten oinarriak

7. Hirigintzako aldi baterako izaeraz AOT bat izendatzeko hautaketa prozesua eta oinarrien 90/2019 ebazpenaren onarpenaren konpetentziaren abokazioaren berri ematea.
8. Dekretu hauen berri ematea:  
**2019/815 (2019/25 eta 2019/26 faktura-zerrendak).**  
**2019/893 (2019/27 eta 2019/28 faktura-zerrendak)**  
**2019/907(2019/29 faktura-zerrenda).**
9. Alkatetza-dekretu hauen berri ematea: 2019ko maiatzaren 22tik 29ra (dk2019/866-2019/920).

## **1. AURREKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko maiatzaren 27an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

## **2. ONARTZEA TOLOSAKO UDAL MUGAPEAN BIDAIAREN HERRI-GARRAIO ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA.**

### **1.- IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

Kontratuaren helburua	Tolosako udal mugapean bidaiaien herri-garraio zerbitzuaren kontratua.
Unitate sustatzailea	Ingurumen Departamentua



## **2.- AURREKARIAK**

Lehena.- 2018ko ekainaren 29an Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Eranskinean (Suplemento al Diario Oficial de la Unión Europea) argitaratu zen 2018/S 123-280774 zenbakirekin, legeak urtebeteko epearekin agintzen duen zerbitzu publikoei dagokien aurretiazko iragarkia. Horren bitartez, lizitazio berriari hasiera emateko lehen pausoa bete zen. Kontratuaren xeda hau zen: “Tolosako udal mugapean bidaiarien herri-garraio zerbitzuaren kontratua-Servicio de transporte urbano de viajeros y viajeras en el término municipal de Tolosa.”

Bigarrena.- 2018ko otsailaren 15ean, Hirigintza Departamentuko arduradunak igorritako txostenaren bitartez, eta aurreko puntuaren aipatutako lizitazioa garatzen zen bitartean, urtebeteko kontratua egiteko proposamena egin zuen.

Hirugarrena.- 2018ko martxoaren 1ean, Tokiko Gobernu Batzarrak, besteak beste, Tolosako udal mugapean bidaiarien herri-garraio zerbitzua kontratatzeko expedientea onartu eta lizitazioari hasiera eman zion. Bertan lizitazioan aginduko zuten Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskipzio Tekniko Zehatzen Agiria onartu ziren.

Hirugarrena.- Legearen arabera, lizitazioa Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean (2018/03/07), Estatuko Aldizkari Ofizialean (2018/03/08), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2018/03/08) eta Euskadiko Kontratazalearen profilean (2018/03/02) argitaratu zen iragarkia. Astebete beranduago, iragarkietan akats bat zegoenez, horien zuzenketa egin zen eta legearen arabera argitaratu.

Laugarrena.- Jardunbide guztia legearen arabera gauzatu eta gero, 2018ko apirilaren 26ko alkatearen probidentzia baten bitartez, lizitaziora aurkeztutako enpresa bakarrari, CUADRA BIDEAN, S.L.-ri (IFK:B-01387562), errekeritu zitzaien zegokion dokumentazioa aurkeztu zezan.

Bosgarrena.- Errekeritutako dokumentazio guztia aurkeztuta eta Kontratazio-Mahaiaaren proposamena kontuan izanda, 2018ko maiatzaren 10ean Tokiko Gobernu Batzarrak Tolosako udal mugapean bidaiarien herri-garraio zerbitzuaren kontratua esleitu zion CUADRA BIDEAN, S.L. (IFK:B-01387562) enpresari. Hauek ziren kontratuaren ezaugarri nagusiak:

- Prezioa: 198.134,51 euro BEZA barne, horietatik 180.122,28 euro printzipala eta 18.012,23 euro BEZari (% 10) dagozkionak.
- Tarifak: 0,70 euro bidaia baterako txartela eta 19,50 euro 60 bidaiako bonua.
- Iraupena: Urtebete kontratua sinatzen zenetik, sei hilabetez luzatzeko aukerarekin kasu jakin batzuetan.



Seigarrena.- Kontratua esleituta eta formalizatu gabe egonda, CUADRA BIDEAN, S.L. (IFK:B-01387562) enpresak Tolosako Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu zuen idatzi bat, non hura sinatzeari uko egiten zion, langileekin arazoak baitzeuden eta horrek, oreka ekonomikoa zalantzan jartzen zuen.

Zazpigarrena.- 2018ko ekainaren 21ean Tolosako Udalak eta SEMURA BUS, S.L. enpresak, kontratu bat sinatu zuten autobus baten alokairua gauzatzeko. Kontratuaren iraupena bi hilabetekoa zen eta luzapen automatikoak aurreikusten ziren hilero bi aldeek horrela onartuta.

Zortzigarrena.- 2018ko uztailaren 11n CUADRA BIDEAN, S.L. enpresaren ordezkariak Tolosako Udaleko erregistro orokorrean idatzi bat aurkeztu zuen azalduz langileekin akordio batetara iritsi zirela. Egun berean bertan, Tokiko Gobernu Batzarrak berretsi zuen aurretik onartutako esleipena, enpresak eskatutako aldaketekin.

Bederatzigarrena.- 2018ko uztailaren 12an Tolosako Udalaren eta enpresaren ordezkariek aipatutako kontratua formalizatu zuten. Formalizazioa legearen arabera argitaratu zen Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko Kontratatailearen profilean.

Hamargarrena.- Aipatu bezala, kontratuaren iraupena, 2019ko uztailaren 15ean bukatzen da, baina kontratua arautzen duten Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 2. klausulan eta kontratuaren 4. klausulan, kontratuaren luzapena aurreikusten da hurrengoaren esleipena egin arte.

### **3.- ZUZENBIDEZKO OINARRIAK**

**Araubide juridikoa:** Kontratu honi Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 303. artikuluan xedaturikoa aplikatu beharko zaio, hori baitzen lizitazioa onartu zenean indarrean zegoen legea.

Luzapenari dagokionez, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 2. klausulak hau zehazten du: “*Kontratuak urte bateko iraupena izango du, zerbitzu hasten den egunetik zenbatzen hasita. Sinatze hori zerbitzuak ematen hasi aurretik egingo da. Zerbitzuprestazioa 2018ko uztailaren batetik aurrera emango da, eta udal Idazkariak sinatutako aktaren bidez egiaztatuko da.*

*Kontratu hau ezingo da luzatu, hurrengo paragrafoetan jasotako kasuetan izan ezik: Udalak berak erabakitzentz badu, bere ekimenez eta esleipendunak bere obligazioak bete ez dituelako, kontratua suntsiaraztea, esleipendunak zerbitzu ematen jarraitu beharko du, Udalak horri egoki irizten badio, horretarako deitutako lizitazio berria esleitu arte, edota, gehienez ere, sei hilabetez, kontratua suntsiaraztea erabaki denetik kontatzen hasita. Epe horretan, kontratuan ezarritako prezioak aplikatzen jarraituko da.*



*Udalak egoki irizten badio, eta dagokion Sailak proposatuta, kontratuaren epealdia amaitutakoan eta kontratuaren xede bera duen lizitazio berria esleitu bitartean, kontratistak kontratua gauzatzen jarraitu beharko du, gehienez sei hilabeteko epean.”.*

Bestalde, kontratuaren 4. klausulak, kontratuaren hasierako iraupena urtebetekoa izango zela jasotzen zuen. Bestalde, klausula berean, kontratu horren epea beste sei hilabetez luzatu ahal izango zela xedatzen zen baldintza berezi batzuetan: “*Kontratua sinatzen denetik, 2018ko uztailaren 16an zerbitzua hasiko da eta urtebeteko iraupena izango du, baina 6 hilabetez luzatzeko aukerarekin, kasu hauetan: 1.- Udalak berak erabakitzentz, bere ekinenez eta esleipendunak bere obligazioak bete ez dituelako, kontratua suntsiaraztea, esleipendunak zerbitzua ematen jarraitu beharko du, Udalak horri egoki irizten badio, horretarako deitutako lizitazio berria esleitu arte, edota, gehienez ere, sei hilabetez, kontratua suntsiaraztea erabaki denetik kontatzen hasita. Epe horretan, kontratuaren ezarritako prezioak aplikatzen jarraituko da. 2.-Udalak egoki irizten badio, eta dagokion Departamentuak proposatuta, kontratuaren epealdia amaitutakoan eta kontratuaren xede bera duen lizitazio berria esleitu bitartean, kontratistak kontratua gauzatzen jarraitu beharko du, gehienez sei hilabeteko epean.”.*

Halaber, administrazio kontratu mota guzietako luzapenak, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 23. artikuluaren 2. atalak honako hau xedatzen du: “*2. Kontratuak behin edo gehiagotan luzatu ahal izango dira; betiere, luzapenak luzapen, kontratuaren bereizgarriak iraunaldi osoan ez aldatzekotan eta, kontratua esleitzeko lehiaketan, kontratuaren gehieneko iraupena kontuan hartu bada, luzapen eta guzti. Kontratacio-organoak erabakiko du kontratua luzatu edo ez. Luzatzea erabakitzentz, enpresaburuak ezinbestean onartu beharko du luzapena, non eta kontratuak ez duen berariaz kontrakoak aurreikusten. Ezin da luzapenik izan bi aldeen isilbidezko adostasunaren bidez”.*

Baina kasu honetan, proposatzen den luzapenak ez du ohiko izaera eta aipatutako pleguan aurreikusten da kontratacio organoak duela hura luzatzeko ahalmena: “*Udalak egoki irizten badio, eta dagokion Departamentuak proposatuta, kontratuaren epealdia amaitutakoan eta kontratuaren xede bera duen lizitazio berria esleitu bitartean, kontratistak kontratua gauzatzen jarraitu beharko du, gehienez sei hilabeteko epean.”.*

Ez-ohiko luzapen hau egiteko, bi arrazoi nagusi azaldu ditu Ingurumen eta Landa eremuko teknikariak 2019ko maiatzaren 20an igorritako txostenean: alde batetik, udalerrian lantzen ari den mugikortasun plana, eta bestetik, berriz, lizitazio berriaren zaitasuna eta Udalaren baliabideen ezintasuna. Horregatik, kanpoko bi enpresa kontratatu behar izan dira aipatutako bi alderdi horiek lantzeko. Beraz, nahiz eta lizitazio berria jadanik martxan dagoen, ezinezkoa izango da aipatutako epearen barruan esleipen berria egitea; horrenbestez, behar-beharrezkoxa ikusten da aipatutako artikuluetan xedatutakoaz baliatuta, ez-ohiko luzapena egitea, betiere, lizitazio berria adjudikatu bitartean eta gehienez sei hilabeteko epean.



Antzoko beste kasu batean Auzitegi Nazionalak zehaztasunak eman zituen 2016ko sententzia batean: “*Audiencia Nacional, Sala de lo Contencioso-administrativo, Sección 4ª, Sentencia 24/2016 de 20 Ene. 2016, Rec. 89/2015: la posibilidad de que el contratista cuyo contrato se resuelve continúe prestando el servicio, ha de ser entendida en sus justos términos y no puede tener como consecuencia que esa situación provisional se convierta en definitiva por el hecho de que no se haya logrado una nueva licitación.*”. Beraz, hemen planteatzen den aukera aurreikusita dago jadanik.

**Prezioen berrikuspena:** Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 89. artikuluan eta hurrengoetan, Administrazio Publikoetako kontratuaren prezioak berrikusteko xehetasun hauek ematen ditu, 2016ko abuztuan indarrean zegoen Legearen bertsioan: “*1. Los precios de los contratos del sector público solo podrán ser objeto de revisión periódica y predeterminada en los términos establecidos en este Capítulo. No cabrá la revisión periódica no predeterminada o no periódica de los precios de los contratos. Se entenderá por precio cualquier retribución o contraprestación económica del contrato, bien sean abonadas por la Administración o por los usuarios. 2. Previa justificación en el expediente y de conformidad con lo previsto en el real decreto al que se refieren los artículos 4 y 5 de la Ley 2/2015, de desindexación de la economía española, la revisión periódica y predeterminada de precios solo se podrá llevar a cabo en los contratos de obra, en los contratos de suministro de fabricación de armamento y equipamiento de las Administraciones Públicas y en aquellos otros contratos en los que el período de recuperación de la inversión sea igual o superior a cinco años. Dicho período se calculará conforme a lo dispuesto en el real decreto anteriormente citado. No se considerarán revisables en ningún caso los costes asociados a las amortizaciones, los costes financieros, los gastos generales o de estructura ni el beneficio industrial. Los costes de mano de obra de los contratos distintos de los de obra, suministro de fabricación de armamento y equipamiento de las Administraciones Públicas, se revisarán cuando el período de recuperación de la inversión sea igual o superior a cinco años y la intensidad en el uso del factor trabajo sea considerada significativa, de acuerdo con los supuestos y límites establecidos en el Real Decreto.*”.

Halaber, aipatutako kontratuaren bosgarren klausulak hau zehazten du: “*Ez da prezioa berrikusiko, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, bere 89. artikuluan eta ondorengoetan (Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legeak aldatuak) xedaturikoarekin bat, eta kontratuaren ezaugarriak kontuan hartuta.*”. Hori bera jasotzen da Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 6. klausulan: “*Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 89. artikuluan (Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren inguruko martxoaren 30eko 2/2015 Legeak aldatuak) xedaturikoarekin bat, kontratu honi ez dagokio prezioaren berrazterketarik.*”.



Beraz, kontratu honen luzapenean **ez dago prezioen berrikuspenik.**

**Organismo que lo apoya.-** Kontratu honen luzapena ebazteko eskumena Kontratacio-Organoari dagokio.

Kasu honetan, Kontratacio-Organoa Tolosako Udaleko alkate-lehendakaria da, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren II. Xedapen Gehigarriaren I. atalean eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera: "*Corresponden a los Alcaldes y a los Presidentes de las Entidades locales las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, de gestión de servicios públicos, los contratos administrativos especiales, y los contratos privados cuando su importe no supere el 10 por 100 de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.*", baina, 2015/1278 Alkatetzaren Dekretuaren bidez alkate-lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetu zituen hainbat eskudun, horien artean, era guztietako kontratacio eta kontzesioak 60.000,00 eurotik gorakoak, baldin eta ez badute gainditzen aurrekontuko baliabide arrunten % 10, ezta sei milioi euro ere; beraz, **Tokiko Gobernu Batzarrarena da kontratua luzatzeko eskumena.**

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## E R A B A K I   D U

**LEHENA.-** Onartzea Tolosako udal mugapean bidaiaien herri-garraio zerbitzuaren kontratuaren **luzapena**, arestian esan bezala, kontratuaren ezarritako klausulekin.

**BIGARRENA.-** Kontratuaren luzapena, gehienez, **sei hilabeteko** izatea, eta beti ere lizitazio berria adjudikatu bitartean. Hau da, 2019ko uztailaren 16tik 2020ko urtarrilaren 15a arte gehienez.

**HIRUGARRENA.-** Kontratuaren luzapenean **prezioa ez berrikustea.**

**LAUGARRENA.-** Aipatutako zerbitzua 0700.223.01.441.10 udal aurrekontuko partidaren kargura finantzatzea.



**BOSGARRENA.-** CUADRA BIDEAN, S.L. (B-01387562) enpresari luzapenaren berri ematea eta errekeritza gehienez 15 eguneko epean kontratuaren luzapena formalizatzera bertaratu dadin.

**SEIGARRENA.-** Luzapenaren formalizazio iragarkia Euskadiko Kontratatzailaren Profilean argitaratzea.

**ZAZPIGARRENA.-** Luzapen honen oinarrizko datuak Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.

**ZORTZIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari.

**3. TOLOSAKO BEOTIBAR PILOTALEKUKO OSTALARITZA EKAIKINAREN TEILATUA ETA FATXADA BIRGAITZEKO ETA PILOTALEKUKO ERAIKINEKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO OBREN 4. ZIURTAGIRI-LIKIDAZIO (33/2019 FAKTURA).**

**TXOSTENA:**

Earki Arkitektoak S.Coop. Peq. p., enpresak ondorengo txostena egin du 2019ko apirilaren 26an Tolosako Beotibar pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilitua eta fatxada birgaitzeko eta pilotalekuko eraikineko irisgarritasuna hobetzeko obrei buruz:

*Tolosako Udalak Construcciones Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L., enpresari esleitzion Tolosako Beotibar Pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilitua eta fatxada birgaitzeko eta Pilotalekuko eraikineko irisgarritasun obren kontratua, 489.770,99 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoak.*

*Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:*

*Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa*

*1. ziurtagiria.....60/2018.....16.911,38 €*

*2. ziurtagiria.....77/2018.....48.366,58 €*

*3. ziurtagiria.....100/2018.....372.548,62 €*

*GUZTIRA.....437.826,58 €*

*Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako laugarrena, honakoa da:*



4. ziurtagiria-likidazioa,.....33/2019.....62.982,91 €

**GUZTIRA..... 62.982,91 €**

*Azken ziurtagiri hau kontuan izanda, obraren egoera ekonomikoa ondoren jasotzen den moduan geratzen da.*

OBRAK					
ADJUDIKAZIOA (BEZ-A BARNE)					489.770,99
ZENBAKIA	FAKTURA ZB	OINARRIA		GUZTIRA	PORTZENTAIA
		OINARRIA	BEZ-A		
1	60/2018	13.976,35	2.935,03	16.911,38	%3,45
2	77/2018	39.972,38	8.394,20	48.366,58	%9,88
3	100/2018	307.891,42	64.657,20	372.548,62	%76,07
4-LIKIDAZIOA	XX/2019	52.051,99	10.930,92	62.982,91	%12,86
GUZTIRA		413.892,14	86.917,35	500.809,49	%102,26

*Ikus daitekeenez, adjudikazioarekiko hazkunde bat izan da likidazioko azken kopuruan, % 2,26koa hain zuzen ere.*

*Aldaketa horiek neurketen igoera baten ondorioa dira, obra-zuzendaritzaren txostenean jasotzen den moduan.*

Ziurtagiria aztertu ondoren, ontzat ematen da:

- **4. ziurtagiria..... 62.982,91 €**
- **Likidazioa..... 500.809,49 €**

Ziurtagiri hau azertuta, eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola aipatutako ziurtagiriari, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea aipatutako fakturaren gehikuntza, 11.038,50 €-koia, 1.100.622.02.342.20. 2019 partidaren kargura.



**BIGARRENA.**- Ontzat ematea Tolosako Beotibar pilotaleku ostalaritzaren eraikinaren teilitua eta fatxada birgaitzeko eta pilotaleku eraikineko irisgarritasuna hobetzeko obren 4. ziurtagiria-likidazioa, ondorengo kopuruekin:

4. ziurtagiria ( BEZik gabe).....	52.051,99 €
4. ziurtagiria (% 21eko BEZa barne).....	10.930,92 €
GUZTIRA.....	62.982,91 €

Era berean onartzea obraren likidazio 500.809,49 €-koa

**HIRUGARRENA.**- Dagokion faktura ordaintzea.

**LAUGARRENA.**- -Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailertzari, Hirigintza Departamentuari eta lizitatzaileari.

**4. ONARTZEA IZENDAPEN HAU ARAUTZEKO OINARRIAK: ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI BATEN IZENDAPENA, OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ ETA BITARTEKO IZAERAZ, TOLOSAKO UDALEKO ZERBITZU EKONOMIKOETAN ALDI BATERAKO PROGRAMA BAT EGIKARITU DEZAN 32/2018 FORU DEKRETUTIK ERATORRITAKO ARAUTZE-ALDAKETAK ETA BESTE BATZUK EZARTZEKO.**

Batzordekideek aztertu dituzte udal kontuhartzailak proposatutako oinarriak eta Giza Baliabideetako Departamentuko arduradunak egindako txostena, zeinaren arabera hainbat aldaketa proposatzen diren, Giza Baliabideetako Departamentuko arduraduna bertaratu ondoren.

Bi dokumentu aztertu ondoren, batzarkideek aho batez onartu dituzte Oinarriak, ondoko aldaketekin:

a) Hizkuntza eskakizunari dagokionez: 2. atalean, Hizkuntza Eskakizuna: **4. HE derrigorrezkoa. Edozelan ere, EAEko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 43.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 72 zenbakia, apirilaren 17ko), izangaietako inork egiaztatzen ez badu hizkuntza eskakizun ori, lanpostu horri 3. HE aplikatuko zaio, deialdi hau hornitzeko baino ez. Zuzenketa hau gingo da ere, Oinarrien 4.d) atalean, eta 8.1 atalean.**

b) Oinarrien 6. atalean, 10 laneguneko epea (hautagaien behin behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko) murriztuko da, eta **3 lanegunetako epea** jarriko da.



c) Oinarrien 8.1 atalean, froga teoriko-praktikoak 40 puntu izango ditu, eta ondoko hau erantsiko zaio: *Frogak teoriko-praktikoa egin ondoren, hautagai bakoitzak epaimahaiaaren aurrean irakurri eta defendatu beharko dituzte egindako ariketak. Epaimahaikideek izangaiarekin hitz egiteko aukera izango dute eta proposatu dituen legezko irtenbideak aztertuko dituzte. Halaber, egindako ariketarekin lotuta ez dauden kasu edo galderak egin ahal izango dizkiote, kasu guztietan, oposizioaldian parte hartzen ari diren izangaien artean berdintasun printzipioa bermatuz.*

Ariketa hau gehienez 40 punturekin baloratuko da. Hain zuzen, idatzizko zatia gehienez 30 punturekin baloratuko da, eta epaimahaiaaren aurreko defentsa, 10 punturekin. Ariketa hau gainditu ahal izateko, gutxienez 15 puntu atera beharko dira lehenengo zatian, eta 5 puntu bigarrengoan

d) Oinarrien 8.2 atalean, lehiaketa fasea arautzen denean, aurreneko paragrafoan ondoko hau erantsiko da: *Oposizioaldiko probak gainditu ondoren, merituak baloratuko dira, baldin eta eskaeran alegatu badira. Une honetan, oposizioaldia gainditu duten izangaietako zaie eskaeretan alegatutako merituak egiazta ditzaten, eta horretarako bost eguneko epea emango zaie.*

e) Oinarrien 12. atalean, proposatutako izangaiak dagokion dokumentazioa aurkeztuko du **10 laneguneko** epean.

Aldaketa hauek egin ondoren, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, ondoko ebazpen hauek hartu ditu:

**LEHENA.-** Onartzea ondorengo deialdia arautzen duten Oinarriak: Administrazio Orokorreko Teknikari baten izendapena, oposizio-lehiaketa bidez eta bitarteko izaeraz, Tolosako udaleko Zerbitzu Ekonomikoetan aldi baterako programa bat egikaritu dezan.

**BIGARRENA.-** Hautaketa-jardunbideari hasiera ematea, eta deialdia ondorengo hauetan argitaratzea:

- Tolosako Udaleko web orrian
- Tolosako Udaleko iragarki taulan
- Prentsan

## **5. ONARTZEA ONDORENGO DEIALDIA ARAUTZEKO OINARRIAK: TOLOSAKO UDALEKO ERRENTA ETA ORDAINARAZPENETARAKO TEKNIKARI LANPOSTUA BITARTEKO IZAERAZ HORNITZEKO HAUTAKETA**

### **AURREKARIAK**



Batzordekideek aztertu dituzte udal kontuhartzaleak proposatutako oinarriak eta Giza Baliabideetako Departamentuko arduradunak egindako txostena, zeinaren arabera hainbat aldaketa proposatzen diren, Giza Baliabideetako arduraduna bertaratu ondoren.

Bi dokumentu aztertu ondoren, batzarkideek aho batez onartu dituzte Oinarriak, ondoko aldaketekin:

a) Oinarrien 6. atalean, 10 laneguneko epea (hautagaien behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko) murriztuko da, eta **3 lanegunetako epea** jarriko da.

b) Oinarrien 8.1 atalean, froga teoriko-praktikoak 40 puntu izango ditu, eta ondoko hau erantsiko zaio: *Froga teoriko-praktikoa egin ondoren, hautagai bakoitzak epaimahaiaren aurrean irakurri eta defendatu beharko dituzte egindako ariketak. Epaimahaikideek izangaiarekin hitz egiteko aukera izango dute eta proposatu dituen legezko irtenbideak aztertuko dituzte. Halaber, egindako ariketarekin lotuta ez dauden kasu edo galderak egin ahal izango dizkiote, kasu guztietan, oposizioaldian parte hartzen ari diren izangaien artean berdintasun printzpioa bermatuz.*

*Ariketa hau gehienez 40 puntuarekin baloratuko da. Hain zuzen, idatzizko zatia gehienez 30 puntuarekin baloratuko da, eta epaimahaiaren aurreko defentsa, 10 puntuarekin. Ariketa hau gainditu ahal izateko, gutxienez 15 puntu atera beharko dira lehenengo zatian, eta 5 puntu bigarrengoan*

c) Oinarrien 8.2 atalean, lehiaketa fasea arautzen denean, aurreneko paragrafoan ondoko hau erantsiko da: *Oposizioaldiko probak gainditu ondoren, merituak baloratuko dira, baldin eta eskaeran alegatu badira. Une honetan, oposizioaldia gainditu duten izangaiei eskatuko zaie eskaeretan alegatutako merituak egiazta ditzaten, eta horretarako bost eguneko epea emango zaie.*

d) Oinarrien 12. atalean, proposatutako izangaiak dagokion dokumentazioa aurkeztuko du **10 laneguneko** epean.

Aldaketa hauek egin ondoren, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, ondoko ebazpen hauek hartu ditu:

**LEHENA.-** Onartzea ondorengo deialdia arautzen duten Oinarriak: Tolosako Udaleko Errenta eta Ordainarazpenetarako teknikari lanpostua bitarteko izaera z hornitzeko hautaketa jardunbidea.

**BIGARRENA.-** Hautaketa-jardunbideari hasiera ematea, eta deialdia ondorengo hauetan argitaratzea:

- Tolosako Udaleko web orrian
- Tolosako Udaleko iragarki taulan
- Prentsan



**6. ONARTZEA ONDORENGO DEIALDIA ARAUTZEKO OINARRIAK: TOLOSAGO UDALEKO PLANTILAN HUTSIK DAGOEN GARAPEN EKONOMIKOA, TURISMOA, MERKATARITZA, AZOKAK ETA ENPLEGUAREN SUSTAPENERAKO BURUAREN LANPOSTUA BITARTEKO IZAERAZ HORNITZEKO HAUTAKETA.**

Gai hau mahai gainean geratu da eta, bere kasuan, beharrezkoia izango balitz deialdia egitea, alkateak bereganatuko ditu oinariak onartu eta deialdia egiteko ahalmenak.

**7. HIRIGINTZAKO ALDI BATERAKO IZAERAZ AOT BAT IZENDATZEKO HAUTAKETA PROZESUA ETA OINARRIEN 90/2019 EBAZPENAREN ONARPENAREN KONPETENTZIAREN ABOKAZIOAREN BERRI EMATEA.**

Idazkariak alkatearen 2019/905 Dekretuaren berri eman du.

Honela dio:

**DECRETO DE ALCALDÍA**

**N.º 905/2019**

**OLATZ PEÓN ORMAZABAL, ALCALDESA DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA,** teniendo en cuenta lo establecido en los arts. 21.1.g) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y teniendo en cuenta los siguientes

**ANTECEDENTES**

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Tolosa, reunida en sesión celebrada el 2 de febrero de 2019, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

**“LEHENA.- Tolosako Udaleko plantillan hutsik dagoen Administrazio Orokorreko Teknikari lanpostua aldi baterako izaeraz hautatzeko jardunbideari hasiera ematea, bitarteko funtzionario gisa izendatu ahal izateko, lanpostuak honako ezaugari nagusiak dituelarik:**

- *Izaera: Bitarteko Funtzionarioa. Administrazio Orokorreko Eskala, Goi Teknikari Azpieskalakoa, Goi mailako mota.*
- *Iraupena: Lanpostua behin-betiko izaeraz hornitu arte, edota amortizatu arte.*
- *Lanpostuaren ezaugariak: Goi Mailako Teknikaria (A1 taldea), Destino Osagarria 24, Berariazko Osagarria: 19.027,96 €*
- *Lanaldia: %100<sup>a</sup>*
- *Hornitzeko era: oposizio-lehiaketa publikoa.*

**BIGARRENA.-** Aipatu bitarteko funtzionarioaren hautaketa arautuko duten oinariak onartzea (dokumentu honi eransten zaizkio).

**HIRUGARRENA.-** Deialdiaren eta oinarien argitalpena egitea ondoko eran:



- *Tolosako Udalaren web orrian, “lan eskaintza” atalean.*
- *Udaletxeko Iragarki Taulan*
- *Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean*
- *Eskualdeko prentsan*
- **LAUGARRENA.-** *Ebazpen honen berri Kontuhartzaitzari eta langileen ordezkarie ematea.”*

El anuncio correspondiente al proceso selectivo aprobado fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 12 de abril de 2019 (n.º 71).

El 30 de abril de 2019 tuvo entrada en el Registro de este Ayuntamiento (n.º 3.992/2019), escrito presentado por D. Patxi-Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa en el cual formula RECURSO DE REPOSICIÓN contra la resolución adoptada por la Junta de Gobierno Local. Se resume a continuación la argumentación del citado recurso:

- El recurrente estima vulnerado el art. 28 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, reguladora del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que atribuye al interesado el derecho a no presentar documentos elaborados por la Administración pública requirente o el resto de administraciones públicas. Refiere que, en ausencia de oposición por parte del interesado (dicha ausencia se presume en el texto legal), “*las Administraciones públicas deberán recabar los documentos electrónicamente a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto*”.
- Asimismo, el art. 53 de la citada Ley reconoce a los interesados el derecho “a no presentar datos y documentos no exigidos por las normas aplicables al procedimiento de que se trate que ya se encuentren en poder de las administraciones públicas o que hayan sido elaborados por éstas”.
